# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**580**

AGINDUA, 2009ko azaroaren 27koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Urnietako (Gipuzkoa) «Salesianos Urnieta » Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Hezkuntza Bereziko unitate bat sortu eta martxan jartzeko baimena emateko dena.

Urnietako (Gipuzkoa) «Salesianos Urnieta » Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak ikastetxe horretan Hezkuntza Bereziko unitate bat sortu eta martxan jartzeko baimena eskatuz abiarazi duen espedientea aztertu da.

Espediente horri Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Honakoak izan dira kontuan: ikastetxe pribatuetan Unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (9ko BOE); beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko 1998ko uztailaren 30eko Agindua (abuztuaren 31ko EHAA); eta gai horretan aplikagarri diren gainerako legeak. Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Ondoren zehazten den ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio 2009-2010 ikasturtetik aurrera Hezkuntza Bereziko unitate bat sortu eta martxan jartzeko:

Kode-zenbakia: 20005270.

Izen espezifikoa: «Salesianos Urnieta».

Titularra: Aita Salestarrak.

Helbidea: Ergoien auzoa, 6.

Udalerria: Urnieta.

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa.

Baimena: Hezkuntza Bereziko unitate bat gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**580**

ORDEN de 27 de noviembre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la apertura y funcionamiento de una unidad de Educación Especial al centro privado de Educación Secundaria «Salesianos Urnieta» de Urnieta (Gipuzkoa).

Examinado el expediente iniciado por el representante de la entidad titular del centro privado de Educación Secundaria «Salesianos Urnieta» de Urnieta (Gipuzkoa), en solicitud de autorización para la apertura y funcionamiento de una unidad de Educación Especial en dicho centro.

Resultando que el citado expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Gipuzkoa, que se ha unido al mismo la documentación exigida por la normativa vigente y que ha sido informado por los organismos competentes en la materia.

Vistos el Real Decreto 332/1992, de 3 de abril (BOE del 9), sobre autorizaciones de centros docentes privados para impartir enseñanzas de régimen general no universitarias, la Orden de 30 de julio de 1998 (BOPV del 31 de agosto), por la que se establecen criterios de escolarización del alumnado con necesidades educativas especiales y dotación de recursos para su correcta atención en las distintas etapas del sistema educativo, y demás disposiciones vigentes aplicables en la materia,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Se autoriza, a partir del curso escolar 2009/2010, la apertura y funcionamiento de una unidad de Educación Especial al centro docente privado que se describe a continuación:

N.º de código: 20005270.

Denominación específica: «Salesianos Urnieta».

Titular: Padres Salesianos.

Domicilio: Ergoien auzoa, 6.

Municipio: Urnieta.

Territorio Histórico: Gipuzkoa.

Autorización: autorización de 1 unidad de Educación Especial.

Composición resultante:

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: 8 unitate, 240 ikaspostutarako edukiera.

– Batxilergoan: Modalitateak: «Zientziak eta Teknologiak» eta «Humanitateak eta Gizarte-zientziak», 8 unitate eta 280 ikaspostutarako edukierarekin.

– Hezkuntza Berezian: unitate 1.

– Lanbide Heziketa:

• Familia: Arte Grafikoak.

* «Argitalpenen diseinua eta produkzioa» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

* «Arte grafikoen industrietako produkzioa» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

• Familia: Elektrizitatea eta Elektronika.

* «Instalazio elektriko eta automatikoak» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

* «Erregulazio- eta kontrol-sistema automatikoak» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

* «Instalazio elektroteknikoak» goi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

• Familia: Produkzioko mantentze eta zerbitzuak.

* «Makineria eta linea-eroanbideen instalazioa eta mantentze elektromekanikoa» erdi-mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

***2. artikulua.***– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea agindu honen bidez baimendutako unitateko irakasleen titulazioari dagokionez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

***3. artikulua.***– Ikastetxeak Eraikuntzako Oinarrizko Arautegia bete beharko du (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene, osasun, akustika, bizigarritasun, segurtasun eta irisgarritasun baldintzak ere. Zentroko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez dakar, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartez ematen diren laguntzak lortzea.

***Bigarrena***.– Agindu honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil

– Educación Secundaria Obligatoria: 8 unidades con capacidad para 240 puestos escolares.

– Bachillerato: Modalidades de «Ciencias y Tecnología» y «Humanidades y Ciencias Sociales», con capacidad para 8 unidades y 280 puestos escolares.

– Educación Especial: 1 unidad.

– Formación Profesional:

• Familia Artes Gráficas:

* Ciclo Formativo de Grado Superior de «Diseño y Producción Editorial». Capacidad: 1 ciclo.

* Ciclo Formativo de Grado Superior de «Producción en Industrias de Artes Gráficas». Capacidad: 1 ciclo.

• Familia Electricidad y Electrónica:

* Ciclo Formativo de Grado Medio de «Instalaciones Eléctricas y Automáticas». Capacidad: 1 ciclo.

* Ciclo Formativo de Grado Superior de «Sistemas de Regulación y Control Automáticos». Capacidad: 1 ciclo.

* Ciclo Formativo de Grado Superior de «Instalaciones Electrotécnicas». Capacidad: 1 ciclo.

• Familia Mantenimiento y Servicios a la Producción:

* Ciclo Formativo de Grado Medio de «Instalación y Mantenimiento Electromecánico de Maquinaria y Conducción de Líneas». Capacidad: 1 ciclo.

***Artículo 2.***– El centro queda obligado al cumplimiento de la normativa vigente en cuanto a la titulación del profesorado destinado a la unidad autorizada por la presente Orden. En caso contrario, procedería la revocación de la autorización otorgada.

***Artículo 3.***– El centro deberá cumplir el Código Técnico de la Edificación, aprobado por el Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, así como las condiciones higiénicas, sanitarias, acústicas, de habitabilidad, de seguridad y de accesibilidad que se señalen en la legislación vigente. La responsabilidad por el incumplimiento de dichas condiciones corresponde al titular del centro.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– El otorgamiento de la autorización contenida en la presente Orden no implica, en modo alguno, la obtención de ayudas a través del régimen de conciertos educativos.

***Segunda***.– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el

biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 27a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de noviembre de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.